

EUSKARA – BERRIKUSI UNITATEA

BERRIKUSI UNITATEA

1 Irakurri eta erantzun galderei.

Postaren historia

Posta, eskutitzak eta mezuak garraiatzeaz eta banatzeaz arduratzen den zerbitzua da. Postak bilakaera handia izan du historian zehar. Erdi Aroan, *mezulariak* arduratzen ziren mezuak leku batetik bestera eramateaz. Gehienetan, erregeen mezuak garraiatzen zituzten. Askotan oinez joan behar izaten zuten, leku arriskutsuetatik ibiliz. Baita bidelapurrei aurre egin ere! Aurrerago, mezulariak zalgurdiez baliatu ziren mezuak bizkorrago banatzeko. Hala ere, gutunek oraindik denbora asko behar izaten zuten hartzailearen eskuetara heltzeko! Mendeez aurrera egin ahala, teknologiaren hobekuntzari esker betiere, posta gero eta profesionalagoa bihurtu da. Gaur egun, gutuak trenaz, itsasontziz, kamioiz eta hegazkinez garraiatzen dira. Hori gutxi balitz, azken hamarkadetan, posta elektronikoak indar handia hartu du: mezuak bidaltzeko modurik arinena da!

- Zer da posta? Idatzi testuan ageri den aurkezpena.
- Nork garraiatzen zituen mezuak Erdi Aroan? Zer arrisku izan ohi zuten?
- Nola aldatu da posta historian zehar? Deskribatu.
- Zertarako erabiliko zenuke zuk posta elektronikoa?

2 Sortu hitz elkartuak, bi zutabeetako hitzak lotuz.

aparkatu	goma
uda	leku
idatzi	makina
jan	bide
borratu	berri
ibili	toki

3 Idatzi esaldiak hitz elkartu hauekin: igeri-leku, sendabelar, saltoki, mendikate.

4 Osatu esaldiak h duten hitz hauekin: hontz, herensuge, hegazkin, hazi.

- Baserritarrek ... erein ditu baratzean.
- Gauean, ... baten uluak entzun ditut.
- ... hartu dugu Parisera joateko.
- Diotenez, ... bat bizi omen zen leizean.

5 Idatzi definizio hauei dagozkien hitzak:

- Gizakiok ahoan ditugun hezur zuri txikiak.
- Biztanle asko dituen etxe eta kalez osaturako lekua.

6 Berridatzi esaldiak pluralean. Gero, idatzi lehenaldian.

- Entrenatzaileak baloi berri bat erosi du.
- Ikasleek ez dute ariketa ulertu.
- Liburua liburutegian hartu dugu.
- Ez al duzue mezua jaso?
- Autobusak gurpila zulatuta du.

7 Osatu esaldiak aditz hauek erabiliz: genituen, zituen, ditu, zituzten, dituzte, zuten.

- Trenak umeak eramane ... herrira.
- Lapurrek idunekoa ostu
- Atzo postariak gutunak banatu
- Garbiltzaileek hostoak batu ... lurretik.
- Guk arkatzak galdu
- Haiek iaz txango ugari egin

8 Osatu esaldiak NOR-NORK motako aditzekin.

- Ezkutatu egin gara eta haiek gu ez ... topatu.
- Txoriak hainbat zizare jan ...
- Amak esan dit: «Maite ..., laztana».
- Non dago zorroa? Guk ez ... hartu.
- Amonak ederki zaintzen ... gu.